



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

Numéro spécial 3 | 2015

Euskal hizkera eta dialektoak gaur egun

Azkaingo izenordainak

Maitena Duhalde



Éditeur
IKER

Édition électronique

URL : <http://lapurdum.revues.org/2652>

DOI : [10.4000/lapurdum.2652](https://doi.org/10.4000/lapurdum.2652)

ISSN : 1965-0655

Édition imprimée

Date de publication : 1 novembre 2015

Pagination : 115-123

ISBN : 9782955341322

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Maitena Duhalde, « Azkaingo izenordainak », *Lapurdum* [Linean], Numéro spécial 3 | 2015, Sarean emana---an 12 juillet 2017, kontsultatu 20 septembre 2017. URL : <http://lapurdum.revues.org/2652> ; DOI : [10.4000/lapurdum.2652](https://doi.org/10.4000/lapurdum.2652)

Azkaingo izenordainak

Maitena DUHALDE
UPPA-IKER, UPV/EHU

Laburpena

Lapurdi itsas hegiko euskara edo «Kostatar» mintzairari buruz gure ezagutzen aberasteko helburuarekin, hizkera honen barne den Azkaine herriko izenordainei interesatu gara. Lan xume honetan, Azkaingo ahozko euskararen erabili ohi diren pertsona izenordain arruntak eta indartuak, baita izenordain zehaztugabeak ere ekarri ditugu. Datu hauek, dialektologian usaiakoak diren irizpideen bidez hautatu lekukoen ahotik bildu dira, inkesta zein hizketa librean. Elementu hauek inguruko hizkerekin alderatu ditugu, gure esku diren lanak kontuan hartuz. Gainera, XVIII, XIX eta XX. mendeetako hiru azkainarren idatziak aintzat hartu ditugu, hauek dira Michel Chourio, Etienne Lapeyre eta Jean Elissalde, tokiko euskararen bilakaeraren berri eman ahal izateko.

1. Sar-hitza¹

Lan hau hasteko, Pierre Urte, lehen euskal gramatika ezagunaren idazlearen hitzak ekarriko ditugu:

De Toute la Cantabrie françoise où l'on parle le meilleur basque c'est dans la prouince de Labour, qu'on nomme Laphurdi, et surtout a St Jean de Luz et a Sara deux paroisses de cette prouince distantes de deux petites lieues l'une de l'autre c'est ce que tout le monde auoue unanimement en ce país la. (Urte 1712 [1900]: 5).

Lapurtera klasikoa, prestigiozko mintzaira hau, geografikoki Sara eta Donibane Lohizuneren artean mugatua zen (Oyharçabal 2001: 219). XVIII. mendeak tradizio lapurtar honen beherakada markatzen du eta behe-nafarreraren eragina azkartuko da (Pikabea 1993: 288). Gaur egun, Lapurdi itsas hegiko hizkerak hein batean bere prestigioa eta maiz bere presentzia ere galdu dituela anitzek badakigu.

1. Eskerrak Iñaki Caminori lan honi ekarri oharrentzat. Milesker Azkaingo lekukoei, bereziki Totte Errandoneari, haien laguntzarentzat eta pazientziarentzat.

Kostatarrari, hau da, Lapurdi itsas hegiko mintzoari buruzko lanak urri dira, nahiz eta interes berezikoak ere izan. Hala ere, dialektologoek hizkera honen nortasuna agerian eman dute. XIX eta XX. mendeetan, Louis Lucien Bonapartek eta ondotik Julien Vinson eta Pedro de Yrizarrek, Lapurdi itsasaldeko euskara, lapurteraren azpieuskalki bezala kontsideratu zuten. Gaur egun, Koldo Zuazok nafar-lapurtera euskalkian sartaldeko eta sortaldeko azpieuskalkiak bereizten ditu, eta lehen honen barnean kostatar hizkera agerian ematen du, nafar-lapurtera eta erdialdeko euskararen arteko lotura egiten duela gehituz.

Kostatar mintzairari buruz gure ezagutzen aberasteko gogoarekin, duela hilabete batzuk, hizkera honen barne den Azkaingo herriko erakusleei buruz ohar zenbait ekarri genituen (Duhalde: in press). Inkestak herri berean segituz, aldi honetan Azkaingo izenordainei buruzko datu batzuen ekartzera gatoz.

Aipatuko ditugun datuak, dialektologian usaiakoak diren irizpideen bidez hautatu lekukoen ahotik bildu ditugu, inkesta zein hizketa librean. Elementu hauek inguruko hizkerekin alderatu ditugu, gure esku diren lanak kontuan hartuz. Gainera, XVIII, XIX eta XX. mendeetako hiru azkainarren idatziak begiratu ditugu, tokiko euskararen bilakaera ere aztertu ahal izateko: Michel Chourioren *Jesu-Christoren Imitacionea* (1720), Etienne Lapeyreren *Kredo edo sinhesten dut esplikatua* (1891), Jean Elissalderen *Azkaine gure sorterrria* (1952-1957).

2. Pertsona izenordainak

2.1. Pertsona izenordain arruntak

Hona izenordain arruntak nola agertzen diren Azkainen, kasuen arabera sailkatuz:

Absolutiboa	ni	i
Ergatiboa	nik	ik
Datiboa	neri	iri
Genitiboa	nerere	ire
Destinatiboa	neretzat	iretzat
Soziatiboa	nerekin	irekin
Instrumentala	nitaz	itaz
Inesiboa	neregan, nere gañan, nere baitan	iregan, ire gañan, ire baitan
Adlatiboa	nereganat, nere baitarat	ireganat, ire baitarat
Hurbiltze adlatiboa	neri buruz	iri buruz
Ablatiboa	neretaik, nere baitaik, nereganik	iretaik, ire baitaik, ireganik

Motibatiboa	neregatik	iregatik
zu	gu	zuek
zuk	guk, guek	zuek
zuri	guri, gueri	zueri
zure	gure, guen	zuen
zuretzat	guretzat, guentzat	zuentzat
zurekin	gu(r)ekin	zuekin
zutaz	gutaz, guetaz	zuetaz
zuregan, zure gañan, zure baitan	gu(r)e(n)gan, gu(r)e(n) gañan, gu(r)e(n) baitan	zuengan, zuen gañan, zuen baitan
zureganat, zure baitarat	gureganat, guenganat	zuenganat, zuen baitarat
zuri buruz	guri buruz, gueri buruz	zueri buruz
zuretaik, zure baitaik, zureganik	gu(r)etaik, gu(r)e(n) baitaik, gu(r)e(n)ganik	zuetaik, zuen baitaik, zuenganik
zuregatik	guregatik, guengatik	zuengatik

Aitzineko testuetan, singularreko lehen pertsonan, *ene* dugu eta berriagoetan *ner*e eta *ene* formak ditugu. Izan ere, M. Chourio eta E. Lapeyrek *ene* dute: *enetçat* (Chourio 1978: 237), *enequiñ* (237), *ene* (Lapeyre 1982: 187) *ene gatik* (188). Zerbitzarik berriz, bi formak erabiltzen ditu: *ner*e (98), *ene* (59).

Hizketa librean egin grabaketetan *ner*e entzun dugu beti, nahiz eta Azkaingo lekukoek *ene* forma ezagutzen duten. XX. mende bukaeran, *ner*e bildu zuen K. Artolak, baita kostatarra osatzen duten bertze herrietan ere: Hendaian *ner*e (Yrizar 1997: 257), Ziburun *nèe* (268), Donibane Lohizunen *ne* (269), nahiz Getarian *neré*, *nerí* (330). Denboran urrunago joanez, XIX. mendean, L.L. Bonapartek Donibane Lohizunen *ner*e eta *ene* bildu zituen, baita Sarako

euskaran ere; Ahetzen eta Ainhoan aldiz, *ene* baizik ez (BDV m/s Bv.75²). Lapurdin barnerago den Larresoroko hizkeran, “edute genitiboko *ner*e aski arrunta [dela]” dio tokiko mintzaira aztertu duen Irantzu Epeldek (2003: 115), baina *ene* ohikoagoa dela zehazten du eta honen gainean eraiki direla eratorriak: *enetako* & *enetzat*, *enekin* & *enekilan*, *enegan*, bertzeak bertze.

K. Zuazoren sailkapena kontuan hartuz, nafar-lapurteraren sartaldeko azpieuskalkian, destinatiboan, *-tzat* morfema dugu eta soziationean berriz *-kin*. Morfema orokor hauekin batera, sartaldekokoan *-etako* eta *-kilan* aldaerak ere ezagunak dira, Uztaritze eskualdetik ekialdera. Ez da harrizkeoa beraz, kostatarraren barne den Azkaingo herrian lehen bi aldaeren biltzea, lekukoan ahotik, bai idazleen eskutik: *enetzat* (Chourio 1978: 237), *zuretztat* (Lapeyre 1982: 126), *guretztat* (Elissalde 1985: 33), *enequiñ* (Chourio 1978: 237) *zurekin* (Lapeyre 1982: 137).

Ahoskeraz bi hitz errateko, kostatarrak *i* bokala eta *j* bokalardiaren asimilazio bustidura baduela badakigu (Zuazo 2014: 144). Hala ere, soziationeko *-kin* morfeman palatalizazioa ez da sistematikoa, izan ere, bustidurarekin zein gabe entzun dugu lekuko beraren ahoan.

Lapurtar idazleek XVIII. mendea arte bustidura irudikatu dutela zehazten du Josu Pikabeak (1993: 40-41). Haren hitzetan, ondoko mendetik goiti, Léonce Goyhetche urruñarrak salbu, Lapurtar idazleek ez dute palatalizazioa adieraziko (41).

K. Zuazok /u + a, e, o/ arteko *-b-* epentesia Euskal Herri erdiguneko eremu murrizteko ezaugarrien artean sailkatzen du (2014: 218). XIX. mendean Bonapartek *-uba-* emaitza bildu zuen kostatarra osatzen duten zenbait herritan (BDV m/s Bv 84). Gainera, bere eskuizkribuetan Donibane Lohizuneko *zubek*, *zuketaz*, *zuberi* izenordainen berri ere ematen digu (BDV m/s Bv75). Gure grabaketetan berriz, ez dugu *-b-* epentetikorik bildu ez Azkainen ez eta Lapurdi itsas hegiko bertze herrietan ere (Duhalde: 2015).

Pluraleko lehen pertsonarentzat, Azkaingo lekukoan ahotik bi sail bildu ditugu, alde batetik, *guk* eta eratorriak eta bertzetik, *guk* eta eratorriak. Lehen formak erabiltzen dira literaturan: *guri* (Chourio 1978: 55), *gutaz* (Lapeyre 1982: 253), *gure* (Elissalde 1985: 33). XIX. mendean Donibane Lohizuneko euskaran ere *gure* dugu genitiboan (BDV m/s Bv75).

Entzun ditugun bigarren forma horiek, pluraleko bigarren pertsona bezala eraikiak dira: *guk*, *gueri*, *guen*, *guentzat*, eta abar. Ziburun, forma hauez gain, singularreko bigarren pertsonan *ien*, *ientzat* ere aditu ditugu. Hauen erabileraren maiztasuna eta zabalera argitzea espero dugu gure hurrengo azterketetan.

2. BDV m/s Bv.75: L.L. Bonaparteren euskal eskuizkribuak, 2C2 mikrofilma (Arana, J. A. & Gonzalez, C. 1989: 42).

2.2. Pertsona izenordain indartuak

Hona Azkaingo pertsona izenordain indartuak, kasuen arabera taula batean emanik:

	abs.	erg.	dat.	edute-gen.
1.p.sg.	neone	neonek	neoni	neonen
2.p.sg.	ione	ionek	ioni	ionen
1.p.pl.	geone, guone	geonek, guonek	geoni, guoni	geonen, guonen
2.p.sing.	zeone, zuone	zeonek, zuonek	zeoni, zuoni	zeonen, zuonen
2.p.pl.	-	-	-	-

Xiberotik Lapurdi ekialderaino *nihaur* saileko izenordain indartuak entzuten dira (Zuazo 2014: 136), Uztaritze eskualdean *neroni* eta *nihaur* lehiakide dira (Epelde 2003: 115), eta mendebaldean *neroni* nagusitzen da. Sartaldeko hizkeretan bezala, Azkainen ere *neroni* sailekoak ditugu.

L.L. Bonapartek ere Donibane Lohizuneko euskaran sail honetako izenordain indartuak bildu zituen: abs. *neoni*, *heoni*, *geoni*. Baita Saran ere: *neoni*, *neonik*, *neoniri* (BDV m/s Bv75). Kostatarrarekin mugan diren Irun eta Hondarribiko euskaran *neuni* eta *geuni* formak aditzen dira (Sagarzazu 2005: 72).

Mikel Martínez-Aretak, izenordainen eraketaren prozesuen berri ematen digu, alde batetik izenordain neutroena, 1st PPSP + adverbial *haur*, eta bertzetik lehen eta bigarren izenordain pertsonalen atzizki prozesua, 2nd PPSP + 1st p. *haur*, *hon-ek* / 2nd p. *hori*, *horr-ek* (2013: 306-307):

First comes the pronoun, then haur, interpreted as an adverbial element of proximity (hence its lack of inflection, as is the case in the 2nd PPSP) and unspecified for 1st or 2nd p., and finally, attached to the result of the 1st PPSP (in its bare form), hau(r) for 1st p. and hori for 2nd p. pronouns. These are interpreted as demonstratives, and as such are inflected (Martínez-Areta 2013: 307).

Gure idazleek *neroni* sailekoak darabiltzate: abs. *neroni* (Chourio 1978: 282), erg. *neronek* (Elissalde 1985: 98), erg. *neronec* eta *nerorrec* (Chourio 1978: 239, 242) abs. *ceroni* (Chourio 1978: 104), erg. *zeronek* (Lapeyre 1982: 70), erg. *gueronec* (Chourio 1978: 72). Datiboaren kasuan, lapurtar idazleek *neroni*, *neroniri* eta *nerorriri* baliatzen dituztela zehazten du J. Pikabeak. Izan ere, kasu absolutiboan erabili ohi den *neroni* izenordaina, Axularrek kasu datibo gisa dakar (1993: 215). Ziburuko Etxeberriren obran, bi formak ditugu, *zerori* / *zeroni* eta *zeronek* / *zerorrek*, “non bi sailok, *-oni* / *-ori*, *-onek* / *orrek*, ez baitute deus ere bereizten” (Azkarate & Altuna 2001: 35).

Absolutiboan *-i* hori ez da agertzen bildu ditugun datuetan, baizik eta *-e*, datiboarekin nahasketa saihestuz: *neone*, *ione*, *zeone*, *geone*. Aipatzekoa da ere, *zerone* eta *gerone* izenordain indartuez gain, *guone* eta *zuone* formak bildu ditugula, baina **nione* aldiz ez.

Izenordain indartuez gainera, Iñaki Caminok, singularreko lehen eta bigarren pertsonen izenordain hanpatuak, genitiboan bihurkari ere direnak, *neure* eta (*h*)*eure*, lehen testuetatik Euskal Herriko mendebaldean, erdialdean eta Ipar Euskal Herri gehienez ageri direla seinalatzen du, hedatze horrek forma aski zaharrak direla erakusten duelarik (2008: 119). Hona zer dioen Mitxelenak *heure* izenordain hanpatuaren jatorriaz: *La forma protovasca debió de ser *hi-haur-e, o *hi-hor-e lit. 'de este, ese, tú'* (1990: 210).

Neure izenordain bihurkaria darabil M. Chouriok: *Nola neure burua iasan deçaquet bizitce dohacabe hunetan?* (1978: 191). E. Lapeyre eta J. Elissalderen idazkietan ez ditugu forma horiek irakurri. Gure grabaketetan, hizketa librean adibide urri bildu ditugu eta singularreko lehen pertsonan bakarrik.

2.3. Izenordain zehaztugabeak

Hona hemen Azkaingo izenordain zehaztugabeak, taula batean sailkatutik:

	-bait	edo-	-nahi	neh-
izord.	norbait	-	nornai	nior
	zerbait	-	zernai	-
	zonbait, zenbait	edoñoñ, edozeñ	-	
lekua	nunbait	-	nunai	niun
	nuapa(i)t	-	nunaitik	niundik
				niorat
denbora	noizpait	-	noiznai	-
modua	nolazpait	-	nolanai(zka)	-

Nabarmenezkoa da bigarren osagaia *nahi* duten izenordainak nagusi direla: *nornai*, *zernai*, *nunai*; eta *edo-* duenaren adibide bakarra dugu: *edoñoñ* edo *edozeñ*. Azkaingo idazleek ere forma berdinak erabili dituzte. Ondoko adibideak M. Chouriorenak dira: *nor nahi* (1978: 362), *cer nahi* (206), *non nahi* (175), *norat nahi* (175) eta *edo ceñ* (39). Lapurdi barnealderago kokatuak diren Larresoroko eta Beskoitzeko herrietan ere, izenordain zehaztugabe gehienak *nahi* dutenak dira (Epelde 2003: 117; Duhau 2003: 200-202).

Xiberoan, Erronkarin, Zaraitzun, Behe Nafarroan eta Lapurdi barnealdean, *zoin*, *zonbat*, *zonbait* berriak sortu dira, *zein*, *zenbat* eta *zenbait* ordezkatur (Camino 2011: 123). M. Chourio, E. Lapeyrek, baita J. Elissalde ere, *zenbait* darabilte: *cembait* (Chourio 1978: 458), *zenbait* (Lapeyre 1982: 89; Elissalde 1985: 78). Gure datuei begira, argi da gaur egun Azkainen *zenbait* eta *zonbait* izenordainak lehian direla.

I. Caminok zehazten duenez, Behe-Nafarroan eta Lapurdin *ne(h)or* berrikuntza ibiltzen da, baita Amikuzen ere *nihur* eta *nehor* (2011: 103-104). Ekialdean berriz, **e-nor* zaharraren ordain zuzenak ditugula dio Zuberoan eta Erronkarin, *ihūr & ihün*, *eür & eur* aldaerak, hurrenez hurren. Zaraitzun, Aezkoan eta hego-nafarreran, *yor* eta *yon* ditugu. Bertze eremuetako, *iñor* eta *iñon* aldaerak, “hein batez egoera zaharraren jarraitzaile dira” (Camino 2011: 104).

Orain arte aipatu ditugun Azkaingo idazleek *nihor* darabilte, nahiz eta Lapeyrek *nehork* (158) behin idazten duen. *Nihun* dute E. Lapeyrek eta J. Elissalde, *nihon* berriz M. Chourio (90). Gaurko azkaindarrek forma berak dituzte, hasperena gabe: *nior* eta *niun*.

3. Ondorio gisa

Osatzea merezi duen lan honetan, Azkaingo izenordain arrunten, indartuen eta zehaztugabeen berri ematen entseatu gara, guk bildu datuez gain, tokiko idazleak eta orain arte publikatu ikerlanak ere aintzat hartuz.

Oroitaraz dezagun Azkaingo euskararen hasperena eta *-b-* epentetikoa, biak galdu direla, baita kostatarra osatzen duten bertze herrietan ere; ez dugu beraz, *zube* bezalakorik entzun. Izenordain arrunten artean, XVIII. eta XIX. mendeetan *ene* izenordaina erabiltzen zuten M. Chourio eta E. Lapeyrek, baina J. Elissalde *ner*e eta *ene*, biak lehian. Gaur egun ahozkoan *ene* baztertu da Azkainen eta inguruko herrietan, ekialderagoko hizkeretan aldiz, gordetzen dute.

Lapurdi eta Behe Nafarroak *nehor* eta *nehon* berriak partekatzen dituzte, baita bigarren osagaia *nahi-* duten izenordainak ere. Indartuetan berriz, sail ezberdinak badira eta Uztaritzetik

mendebaldera *neroni* dugu, ekialdeak *nihaur* duelarik. Hala ere, nahiz eta Azkaingo idatzietan *zenbait* beti agertu, ekialdeko eragina sumatzen da, gaur egun azkaindarrek *zenbait* eta *zonbait* baliatzen baitituzte.

Aldaera iduriz berriak ere bildu ditugu gaurko hiztunen ahotik, hala nola absolutiboan *-e* bukaerako izenordain indartuak: *neone*, *zeone*, *geone*. Ahantzi gabe *guk* izenordain arruntarekin lehian den *guk* aldaera baita *geone* eta *zeone*-ren ondoan *guone* eta *zuone* formak ere.

Erreferentziak

- Arana, José Antonio & González, Carlos. 1989. *L.L. Bonaparte: eskuizkribuak argitarapenak = manuscritos-publicaciones*. Bilbo: Euskaltzaindia & Azkue Biblioteka.
- Azkarate, Miren & Altuna, Patxi. 2001. *Euskal morfologiaren historia*. Donostia: Elkarlanean.
- Bonaparte, Louis Lucien. (XIX. mende erdia). *Contestaciones a cuestionarios dialectológicos en el País Vasco-Francés. Notas referentes a Ahetze, Ainhua, Arbonne, Arcangues, Armendarits, Aroue et Etcharry, Ascain, Ayherre, Bardos, Bassussarry, Bidart, Bonloc, Cambo, Baigorry, Briscous, Espelette, Guéthary, Hasparren, Hélette, Iholdy, Irissarry, Isturits, Itxassou, Lahonce, Larressore, Louhossoa, Macaye, Mendionde, Mouguerre, Saint-Esteben, Saint-Jean-de-Luz, Saint-Jean-Pied-de-Port (Baissassarry), Saint-Martin (Méharin), Saint-Palais, Saint-Pée, Saint-Pierre-d'Irube, Sare, Tardets, Urcuit, Urrugne, Ustaritz, Villefranque, argitaratu gabeko 30. eskuizkribua, BDV m/s Bv 75.*
- Bonaparte, Louis Lucien. (XIX. mende erdia). *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes, comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lettres; suivie de la loi de l'affinité ou harmonie des voyelles, et précédée d'une nouvelle classification des dialectes, sous-dialectes et variétés de l'euskara. D'après de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866 et 1867*. Argitaratu gabeko 16. eskuizkribua, BDV m/s Bv 84.
- Camino, Iñaki. 2008. Nafarroa Behereko euskara zaharra. *ASJU* 42. 101-170.
- Camino, Iñaki. 2011. Ekialdeko euskararen iraganaz. In Epelde, Irantzu (arg.) *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. *ASJU*ren gehigarriak LXIX. 87-153.
- Chourio, Michel. 1978 [1720]. *Jesu-Christoren Imitacionea*. 1788. urteko edizioaren faksimilea. Donostia: Hordago.
- Duhalde, Maitena. 2015. Lapurdi itsas hegiko euskara: hiru ezaugarri fonologikoren azterketa. I. *Iker gazte Nazioarteko ikerketa euskaraz: Kongresuko artikulu-bilduma, Udako Euskal Unibertsitatea*. 101-107.
- Duhalde, Maitena. (in press) Azkaingo erakusleak. *Lapurdum*.
- Duhau, Henri. 2003. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara (Beskoitzeko heskuara)*. Donibane Lohizune: Euskal Kultur Erakundea & Beskoitze.
- Elissalde, Jean. 1985 [1952-1957]. *Azkaine gure sorterrria*. Donostia: Elkar.
- Epelde, Irantzu. 2003. *Larresoroko euskara (Dialektologia azterketa)*. Doktorego tesia, UPV/EHU.

- Lapeyre, Etienne. 1982 [1891]. *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*. L. Villasanteren argitalpena. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Martínez-Areta, Mikel. 2013. Demonstrative and Personal Pronouns. In Martínez-Areta, Mikel (arg.) *Basque and Proto-Basque: Language-Internal and Typological Approaches to Linguistic Reconstruction*. Mikroglottika 5. Berna: Peter Lang. 283-321.
- Mitxelena, Koldo. 1990 [1961]. *Fonética Histórica Vasca*, Donostia: ASJU-ren gehigarriak 4, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Oyharçabal, Beñat. 2001. Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles. *Lapurdum* 6, 219-287.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Donostia: Kutxa Fundazioa.
- Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun & Zarautz: Alberdania, Hondarribiko Udala & Irungo Udala.
- Urte, Pierre. 1900 [1712]. *Grammaire cantabrique basque*. W. Websterren argitalpena, Bagnères-de-Bigorre.
- Yrizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*. Bilbo: Euskaltzaindia & Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.